Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Adoracion Zubiaurre Arozena

Zarautz, Gipuzkoa
(1922-2017)



Aurkibidea

Biografia



Zarautzen jaio zen Arenal kalean, hiru senideren artean zaharrena, baina senideetako bat umetan hil zitzaien. Ama Aiakoa zen, etxekoandrea; aita, berriz, Zarauzkoa, tren-geltokiko morroia eta Beristaingo zerrategiko langilea. Adoracionek gogoan ditu umetako kontuak, gaixotasunak, haien erremedioak, haurdunaldiak, gaztetako ohiturak... Ezkondu eta bi alaba izan zituen.

Zintak

ZAR-137

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Data**: 2011-07-14
- **Iraupena**: 78 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

ZAR-138

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Data**: 2011-07-14
- **Iraupena**: 68 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Adoracion izena nondik datorkion

- **Erref**: ZAR-137/003
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:00:32. **Bukatu**: 00:01:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Errege egunean jaio zelako jarri zioten Adoracion de los Reyes izena. Lehen jaioteguneko santuaren izena edo aitajaun-amandreak aukeratutakoa jartzen zen.

2. Zarauztik egiten zituzten txangoak

- **Erref**: ZAR-137/006

- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:06:52. **Bukatu**: 00:09:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:
Lehen Zarautz oso txikia zen oraingo aldean. Lehen San Pelaio urruti geratzen zen, eta Argiñano ingurura joaten ziren txangoan. Zarautzen muina lehen nolakoa zen azaltzen du.

3. Udako giroa Zarauzko jauregietan

- **Erref**: ZAR-137/008
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:11:47. **Bukatu**: 00:13:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:
Zarauzko jauregietan zer giro izaten zen azaltzen du: udan etortzen ziren gehienbat haien jabeak eta langile asko izaten zituzten beraien zerbitzura; haurrak hazteko eta zaintzeko, ordea, hemengo emakumeak hartzen zituzten askotan.

4. Gelak "con derecho a cocina"

- **Erref**: ZAR-137/010
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:14:17. **Bukatu**: 00:15:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:
Udan gelak alokatzen zituzten "con derecho a cocina". Udatiarrak nondik etortzen ziren aipatzen du.

5. Marrazketako tranpak

- **Erref**: ZAR-137/013
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:20:42. **Bukatu**: 00:21:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:
Marrazketan ematen zizkieten zereginetan, tranpa egiten zuen Adoracionek.

6. Gerrako trantze latzak

- **Erref**: ZAR-137/016
- **Iraupena**: 0:03:46. **Hasi**: 00:23:53. **Bukatu**: 00:27:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Gerra Zarautzen ez zen asko nabaritu, soldaduak pasa bakarrik egin baitziren; Gernikan izan zen txikizio ikaragarria. Jendea beldurtu egin zen eta ihes egin zuen. Zarautzen preso zeuden karlista batzuk Bilbora eraman zituzten; haiek zaintzen egon zen aguazila Adoracionen osaba zen, eta beraiekin joan zen beldurragatik Bilbora; gerora harrapatu egin zituzten eta heriotza-zigorra izan zuten urte askoan. Adoracionen aitak azkenean lortu zuen nola-hala anaiari heriotza-zigorra kentzea; baina, hala ere, kartzelan jarraitu behar izan zuen hark.

7. Zarautzen gerrak izandako eragina

- **Erref**: ZAR-137/018
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:29:45. **Bukatu**: 00:31:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerran Zarauzko udaletxea erre egin zuten, bonba bat jarrita. Egun hartan, aita txipiroi bila joana zen, eta haiei txalupara tiroka aritu ziren soldaduak.

8. Gerraostean goseari aurre egin behar

- **Erref**: ZAR-137/022
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:37:18. **Bukatu**: 00:39:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerraostean, gosea etorri zen, II. Mundu Gerran Espainia blokeatuta egon zelako. Baserritarrek garia entregatu egin behar izaten zuten. Kokozko olioa ematen zuten errazionamenduan, baina zapore txarra izaten zuen; oliorik ez zenean, ordea, ganaduaren seboa erabiltzen saiatzen ziren.

9. Falangisten desfileetako fusilak

- **Erref**: ZAR-137/025
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:45:07. **Bukatu**: 00:46:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

Laburpena:
Gerra bukatu ostean, hainbat tailerretan egin zuen lan Adoracionek. Haietako batean, pelaio eta margariten desfileetako fusilak egiten zituzten. Desfile haietako kantak abesten ditu Adoracionek.

10. Euskal Jaiak lehen

- **Erref**: ZAR-137/030
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:53:41. **Bukatu**: 00:55:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Euskal Jaiak San Pelaion ospatzen ziren. Hura herritik urruti zegoela iruditzen zitzaien. Orduko giroa nolakoa zen azaltzen du.

11. San Antonioren kanta

- **Erref**: ZAR-137/034
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 01:07:56. **Bukatu**: 01:08:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
San Antonioren kanta abesten du.

12. Aitagurea

- **Erref**: ZAR-137/037
- **Iraupena**: 0:00:26. **Hasi**: 01:10:39. **Bukatu**: 01:11:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
Aitagurea errezatzen du.

13. Sakaponetan jolasean

- **Erref**: ZAR-138/001
- **Iraupena**: 0:03:54. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Sakaponetan nola jolasten zen erakusten du, tortoloxak eta pilota eskutan hartuta. Pausoz pauso erakusten du.

14. Hondartzara sarri joaten ziren

- **Erref**: ZAR-138/002
- **Iraupena**: 0:03:54. **Hasi**: 00:03:54. **Bukatu**: 00:07:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:
Palatan jolasten zuten hondartzan. Lehen lorategia zegoen hondartzaren ondoan, baita Miramar hotela ere. Eskolatik irtendakoan joaten ziren hondartzara, arroketan kiskilak harrapatzera, lapak jasotzera... Lehen asko omen zeuden.

15. Baineruak aberatsekin

- **Erref**: ZAR-138/003
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:07:48. **Bukatu**: 00:10:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:
Igerian itsasoan ikasi zuten. Aberatsak "baiñeroekin" joaten ziren, zaintzaileekin. Galtza lodiak eta xirazko jantzia eramaten zuten "baiñeroek".

16. Egunpasa Munoazpira

- **Erref**: ZAR-138/005
- **Iraupena**: 0:03:52. **Hasi**: 00:11:16. **Bukatu**: 00:15:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:
Garai hartako bainujantziak luzeak izaten ziren, gorputza tapatuta izaten zuten. Kremarik eta ez zuten erabiltzen. Egunpasa joaten ziren Munoazpira.

17. Tisia orduko gaixotasunik txarrena

- **Erref**: ZAR-138/007
- **Iraupena**: 0:04:03. **Hasi**: 00:16:28. **Bukatu**: 00:20:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:
Medikuak etxera etortzen ziren, ez zegoen inora joan beharrik gaixotutakoan. Tisia izaten zen gaixotasun txarrena.

18. Orduko gaixotasunak

- **Erref**: ZAR-138/008
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:20:31. **Bukatu**: 00:22:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:
"Haztanaparria" gaixotasuna bazen lehen. Ez zen kutsakorra baina markak geratzen ziren gero. Bere ahizpa gazteena pneumoniagatik hil zen.

19. Ahizpa pneumonia harrapatuta hil zen

- **Erref**: ZAR-138/010
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:23:17. **Bukatu**: 00:26:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:
Elgorria oso ohikoa izaten zen. Anaiak eta berak pasatu zuten. Ahizpa gazteak ere elgorria zuelakoan, medikuak ez zuen ongi diagnostikatu eta pneumoniagatik hil zen hiru egunen buruan.

20. Hildakoaren gorpua bizkarrean hilerriraino

- **Erref**: ZAR-138/012
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:27:02. **Bukatu**: 00:30:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Lehen gorpua etxean egoten zen eta bizkarrean eramaten zen hilerriraino. Jatekoa ematen zitzaien etortzen zirenei. Hilerria non dagoen azaltzen du.

21. Dolua senideak hiltzen zirenean

- **Erref**: ZAR-138/013
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:30:07. **Bukatu**: 00:31:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Hileta elizkizunetan aldea igartzen zen. Dolua sarri izaten zuten, senideren bat hiltzen zen bakoitzeko.

22. Mantelina elizarako

- **Erref**: ZAR-138/014
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:31:36. **Bukatu**: 00:33:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Elizarako mantelina eramaten zuten beti. Berak ez zuen ezagutu baina kapa ere eramaten zuten aurretik.

23. Ezkondu arte sexurik ez

- **Erref**: ZAR-138/016
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:34:11. **Bukatu**: 00:35:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:
Norbere gorputzaz eta haurdunaldiaz ez zuten ezer askorik jakiten. Ezkondutakoan hasten ziren sexu-harremanak.

24. Tokatutako senarrarekin betiko

- **Erref**: ZAR-138/018
- **Iraupena**: 0:04:24. **Hasi**: 00:36:37. **Bukatu**: 00:41:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak

Laburpena:
Lehen tokatutako senarrarekin jarraitzen zuten. Ez ziren hainbeste banatzen.

25. Haurdunaldian medikuarengana oso gutxi

- **Erref**: ZAR-138/019
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:41:01. **Bukatu**: 00:43:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Haurdun geratutakoan, medikuarenera zerbait berezia igarritakoan joaten ziren. Lehenbiziko hilabeteetan botaka eta aritzen zen.

26. Erditzea medikuarekin edo emaginarekin

- **Erref**: ZAR-138/020
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:43:02. **Bukatu**: 00:44:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Erditzerako medikua edo emagina etortzen zen. Maria Etxe Txiki zen emagina orduan.

27. Lehenengo umea ospitalean jaio zen

- **Erref**: ZAR-138/021
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:44:39. **Bukatu**: 00:48:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Lehenengo umea Donostian izan zuen ospitalean. Ebakuntza egin zioten.

28. Bularra ematea gozagarri

- **Erref**: ZAR-138/022
- **Iraupena**: 0:03:33. **Hasi**: 00:48:06. **Bukatu**: 00:51:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:
Bigarren umea etxean jaio zen. Bularra jaio orduko ematen zien umeei. Bularra ematea gustoko izan du, harreman goxoa sortzen zelako.

29. Bataioa, ama oneratutakoan

- **Erref**: ZAR-138/024
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:52:25. **Bukatu**: 00:54:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:
Bataioa emakumea oneratzen zenean egiten zuten. Lehen mezak oso sarri izaten ziren.

30. Eguraldia baserritarrek ezagutzen zuten ondoen

- **Erref**: ZAR-138/025
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:54:10. **Bukatu**: 00:55:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Eguraldia baserritarrek gehiago jakitzen zuten. Ekaitza noiz datorren nabaritzen zuten baina askoz gehiago ez.

31. Baserritarrak azokan ezagutzen zituzten

- **Erref**: ZAR-138/026
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 00:55:44. **Bukatu**: 00:59:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Baserritarrek eta kaletarrek plazan, azokan ezagutzen zuten elkar. Gizon baserritarrak azokatan asko ibiltzen ziren tratuan. Emakume baserritarrak plazara saltzera edo esnea banatzera jeisten ziren. Oinetakoak aldatu egiten zituzten herrira orduko.

32. Baserritarrak esnea banatzera exera

- **Erref**: ZAR-138/028
- **Iraupena**: 0:00:24. **Hasi**: 01:00:34. **Bukatu**: 01:00:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:
Astoarekin etortzen ziren baserritarrak esnea banatzera. Astean behin ordaintzen zuten.

33. Etxea suarekin berotzen zuten

- **Erref**: ZAR-138/029
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 01:00:58. **Bukatu**: 01:03:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:
Etxea hiru solairukoa zuen, pasillo luzea eta hiru logela zituen. Suarekin berotzen zuten etxea, baita ura ere.

34. Txapa garbitzeko "sidol"

- **Erref**: ZAR-138/030
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 01:03:22. **Bukatu**: 01:05:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:
Txapa eta brontzezko gauzak garbitzeko "Sidol" izeneko produktua erabiltzen zuten.

35. Lotarako adreilua edo ur beroa

- **Erref**: ZAR-138/031
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 01:05:15. **Bukatu**: 01:07:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua

Laburpena:
Lotarako adreilu beroa edo botila batean ur beroa ipintzen zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-28

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com